

Ezpalak

JON TORNER

Pirateriaren aurkako Hadopi legea balio gabetu dute Frantzian



FRANTZIAKO diputatuek duela hilabete onartu zuten Interneteko deskargak arautzen-zigortzen-dituen Hadopi ize-neko lege polemikoa. Orain, ordea, Batzorde Konstituzionalak balio gabetu egin du, haren hitzetan, erabiltzaileei Interneteko konexioa mozteko beharrezkoa delako epailearen agindua. Hadopi legeak administrazio publikoari ematen dio

ahalmen osoa. Nicolas Sarkozyren asmoa da konexioa moztea Interneteko edukia legez kanpo jaisten dituzten erabiltzaileei. Legeak jaso dituen zigorretatik gogorra da hori: "Interneteko konexioa eteten zaion erabiltzaileak, zerbitzuagatik ordaintzen jarraitu beharko du".

Zentik.info, kazetaritzaz hausnartuz

IBAN IZA eta Nagore Vega kazetariak Zentik.info bloga sortu dute. Kazetaritzari buruzko hausnarketa sustatzea dute helburu, eta gaur egun komunikabideetan nagusitzen ari den joera salatzea. "Iritzi publikoa informatzea baino, iritzi publikoa bideratzea da gaur egungo hedabideen helburua", diote blogaren sortzaileek.

Zurgai poesia aldizkariak jaso du Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma. Duela 30 urte sotu zen aldizkari hori. Txomin Peillen ikerlari, idazle eta euskaltzain osoak, bestalde, Euskal PEN idazluma jaso du Bilboko azokaren baitan egindako ekitaldian. Euskal kulturaren eta adierazpen askatasunaren alde egindako lanagatik omendu dute Euskal PEN Klubeko ohorezko lehendakaria ere baden Peillen.

Bizardunak talde nafarrak Arrasaten aurkeztuko du bere lehen diskoa, hilaren 27an. The Dubliners edo The Pogues moduko taldeen kantak ardatz hartuta, *Rebel Folk* edo *Folk Radical Vasco* bezala definitu dutena egiten dute talde horretako bederatzi kide bizardunek. [www.myspace.com/bizardunak]

deJaBu taldeak jaso du Pragako (Txekiar Errepublika) World Puppet Art jaialdiko zuzendaritza onenaren saria, *Covek nije ptica* (Gizona ez da txoria) antzezlanarekin. DeJaBuren obrak hegazti errariei buruz hitz egiten du, hegan egin ahal izateko sus-traietara bueltatu behar dutenez. Hiru hizkuntza nahasten ditu, euskara, gaztelania eta bosniera.

Joseba Azkarraga Etxagibel abadiñoarrak *Berandu baino leben. Erretratua XXI. mendeari* saiakera liburua (Alberdania) argitaratu du. Azkarragaren ustez, "egungo gizartea gaixo dago, eta gizaki deprimituari *Prozac* ematen diote, antsiolitikoak, arazoan oinarriari ekin beharrean".

● **Asier Muniategi Euskadiko liburu azoken koordintzaileak Bizkaie! agerkari elektronikoan:** «Kantapaina gehiago egin beharko litzatekeez, gitxi egiten dira. Beste herrialde batzuek askozaz diru gehiago gastetan dabe irakurketearen sustapenean eta hori, azken batean, erronka bat da eta guk horretan hutsune bat daukagu, ez ez dalako egiten, gehiago egin behar diralako baino, batez be kultura aldetik. Zergaitik Pirritx eta Porrotzek eta Txirri Mirri eta Txiribitonek saltzen dabe horrenbeste? Umeak eurakaz identifiketan diralako».

● **Unai Elorriaga idazleak Berrian:** «Dena perfektu egin nahi dut eta 8.000 zuzenketa egiten ditut. Behin amaituta, azken puntua jartzean, sentimendua beste bat da, 'zer egingo zaio ba?'. Gero kritika txarrak jasoz gero, ba aurrera. Kritika txarrak, gainera, onak dira: galtzen

ikasten da. (...) Ni profesionala naiz, nire lanbidea da. Horregatik, batzuetan uste dut kritikariak kontu handiagok egin beharko litzatekela beren lanak. Amorruta ematen du batzuetan erabiltzen duten letxe txarrak. Nik lau urte egin ditut lan honen atzean, nik profesional jokatu dut, eta hori bera eskatzen diot kritikariari, profesional joka dezala».

● **Xabi San Sebastian abeslari eta gitarra-jotzaileak Garan:** «Ez dut nor naizen jakin nahi; naiz eta puntu (eta jarraian). Agian, publikoari kostatu egingo zaio nor naizen asmatzea. Merkatuak ez ditu gustuko libertateak (...) Nire izenean proiektuak ateratzea kostatu egin zait. Aurpegia emateak, izena eta irudia jartzeak, beldurtu egiten ninduen. Gatazkak sortzen ziren barruan daramadan anarkistaren eta merkatarren korapiloen artean».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php